

**699/2014 EBAZPENA, GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEKO ZUZENDARI GERENTEARENA, ZERBITZU ERAKUNDEKO II. EUSKARA PLANA ONARTZEN DUENA.**

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak finkatzen ditu Ente Publikoaren Euskara Plana arautuko duten oinarriak. Dekretu horretan zehaztutakoaren arabera, lehenengo plangintza-aldia amaitu eta helburuen betetze-mailaren ebaluazioa eginda, helburu berriak ezarri eta beharrezkotzat jotzen diren egokitzapenak egiteko bidea irekitzen da.

Beraz, aipatu Dekretuaren 3. artikulua ezarritakoa betez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2013-2019 aldiko Euskara Plana onartu zuen 2013ko abenduaren 3ko Erabakiaren bidez. Erabaki horrek bigarren atalean ezartzen duenez, Zerbitzu-erakundeetako zuzendaritzek eurei dagozkien Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak edo Proiektuak onartu beharko dituzte, Plan Orokor horren zehaztapen gisa.

Erabakiak, bestalde, gogorarazten du Osakidetza-Ente Publikoaren Euskara Planaren helburu nagusia dela, herritarren hizkuntza-eskubideak babesteko aurrerapausoak emateaz gainera, pazientearekiko komunikazioaren kalitatea eta empatia hobetzea, giltzarri baitira zerbitzu asistentzialak ahalik eta onenak izan daitezen. Hori dela eta, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Euskara Planak herritarrari eskaintzen zaizkion zerbitzuak hobetzen lagundu behar du.

Aurrekoa betez eta, alde batetik, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa den ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta, beste alde batetik, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak emandako eskumenen arabera,

**RESOLUCIÓN 699/2014, DEL DIRECTOR GERENTE DEL HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES, POR LA QUE SE APRUEBA EL II PLAN DE EUSKERA DE LA ORGANIZACIÓN DE SERVICIOS.**

El Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud establece las bases que han de regular el Plan de Euskera del Ente Público. En aplicación de lo previsto en dicho Decreto, una vez finalizado el primer período de planificación y realizada la evaluación de cumplimiento de objetivos, se abre el camino a la formulación de nuevos objetivos y a las adecuaciones que se estimen necesarias, mediante la renovación del Plan de Euskera.

En cumplimiento de lo previsto el artículo 3 del citado Decreto, el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud aprobó, mediante Acuerdo del 3 de diciembre de 2013, el Plan de Euskera del período 2013-2019. Dicho Acuerdo establece en su apartado segundo que las Direcciones de las Organizaciones de Servicios aprobarán sus respectivos Planes o Proyectos de Normalización del Uso del Euskera, como concreción del mencionado Plan de Euskera general.

El Acuerdo subraya la importancia de tener presente que el Plan de Euskera del Ente Público tiene por objetivo general, además del necesario avance en la protección de los derechos lingüísticos de los ciudadanos, mejorar la calidad de la comunicación y la empatía con el paciente, como elementos claves de la óptima prestación asistencial. Por ello, el Plan de Euskera de esta Organización de Servicios ha de contribuir a la mejora de los servicios prestados al ciudadano.

En su virtud, y de conformidad con las atribuciones competenciales recogidas en la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi y en el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza-Servicio Vasco de Salud,

**EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa.-** Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak Osakidetza II. Euskara Plana bereganatzen du. Horrela, euskararen erabilera normalizatzeko Planak jasotzen dituen irizpide eta neurri guztiak aplikatu eta garatzeko erabakia eta konpromisoa hartzen du, bere jardueraren esparruaren barruan, eta bere izaera asistentziala eta dagokion ingurune soziolinguistikoa aintzat hartuta.

**Bigarrena.-** Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko 2013-2019 aldiko Euskara Plana onartzea, ebazpen honen eranskinetan jasotakoaren arabera.

**Hirugarrena.-** Plana Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko iragarki-tauletan eta web-orrialdeetan argitaratzeko agintzea.

**AZKEN XEDAPENA**

Zerbitzu-erakundeko 2013-2019 aldiko Euskara Plana onartzen duen Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearen ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpen hau zerbitzu-erakundeko iragarki-tauletan eta web-orrialdeetan argitaratu eta biharamunetik aurrera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta hurrengo artikuluek ezarritakoarekin bat etorritz.

Barakaldo, 2014ko apirilaren 15a

**RESUELVO**

**Primero.-** El Hospital Universitario Cruces asume como propio el II Plan de Euskara de Osakidetza, así como la decisión el compromiso de aplicar y desarrollar, dentro de su ámbito de actuación y conforme al carácter asistencial y al entorno sociolingüístico de la organización, todos los criterios y medidas de normalización del uso del euskara recogidas en el II Plan de Euskara.

**Segundo.-** Aprobar el Plan de Euskara del Hospital Universitario Cruces para el periodo 2013-2019, conforme a lo recogido en los anexos a la resolución.

**Tercero.-** Ordenar la publicación del Plan en los tabloncillos de anuncios y en las páginas Web del Hospital Universitario Cruces.

**DISPOSICION FINAL**

Contra la presente Resolución del Director Gerente del Hospital Universitario Cruces, por la que se aprueba el Plan de Euskara para el período 2013-2019, podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en los tabloncillos de anuncios y en las páginas web de la Organización de Servicios, de conformidad con el artículo 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Barakaldo, a 15 de abril de 2014

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Zuzendari Gerentea**

Director Gerente Hospital Universitario Cruces

  
Iz./Fdo.: **SANTIAGO RABANAL RETOLAZA**  
GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA  
HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES

**EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO OSAKIDETZAREN II. PLANA**
**GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEAN APLIKATZEKO ARDURAK, ZEHAZTAPENAK ETA JARRAIPENA**
**1. KAPITULUA: KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA**

| ATALA            | NEURRIA                                                                                                                                                         | AZALPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | DATA | ARDURADUNA                                    |
|------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------|-----------------------------------------------|
| 1.1.Errotulazioa | Barne eta kanpo errotulu finkoen <b>diagnosia egin</b>                                                                                                          | Egokitu beharreko errotuluak zerrendatu (erdara hutsezkoak eta akasdunak)<br><br>Egokitzapen-proposamena bideratu (aurrekontua barne)                                                                                                                                                                                                              | 2015 | Zuzendaritza Ekonomikoa<br>Euskara arduraduna |
|                  | Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak kontratatutako enpresen kartel eta panelei aplikatu                                                                  | Kontratazio-baldintzen artean hizkuntza-irizpideak txertatu                                                                                                                                                                                                                                                                                        | 2015 | Zuzendaritza Ekonomikoa<br>Euskara arduraduna |
|                  | Oinarri lexikal bera duten kartel elebidun berriak euskara hutsez sortu                                                                                         | Euskarazko eta gaztelaniazko testuak berdinak edo oso antzekoak direnean: <i>logopedia, ginekologia...</i>                                                                                                                                                                                                                                         | 2014 | Zuzendaritza Ekonomikoa<br>Euskara arduraduna |
| 1.2.Kartelak     | Bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko protokoloa Ospitaleak sortutako kartel guztiei baita ospitale-eremuan kanpoko elkarte zein enpresek jarritakoei ere aplikatu | <b>Erreferentziako arduradunak izendatu lehentasuneko unitate eta zerbitzuetan</b> (prestakuntza + ereduak + laguntza tekniko eskaini)<br><br>Hasierako diagnosia euskara teknikariarekin batera eta urtean behin berrikusi<br><br>Ospitale-eremuan enpresek edo elkartek zabaltzen dituzten kartelei aldez aurretiko oniritzia emateko protokoloa | 2015 | Zuzendaritza guztiak<br>Euskara arduraduna    |

|                                           |                                                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |           |                                                                                 |
|-------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|---------------------------------------------------------------------------------|
| 1.3. Paper-gauzak                         | Bisita-txartelak, zigiluak, txartelak, fax-azalak eta poltsak azertu                                                                | Egun erabiltzen diren <b>ereduak</b> <b>batu</b> eta <b>Identitate Korporatiboko Eskuliburura</b> egokitu                                                                                                                                                                                             | 2015      | Zuzendaritza Ekonomikoa<br>Euskara arduraduna                                   |
|                                           | Ospitaleko mezu elektronikoen sinadura estandarizatua zabaldu                                                                       | Informazio-kanpainatxo sinadura-ereduaren gainean (zentroko ordenagailu guztien aplikazio baten bitartez eskuragarri)                                                                                                                                                                                 | 2014      | Pertsonal Saila<br>Komunikazio Bulegoa                                          |
| 1.4. Internet, Intranet eta sare sozialak | Erabiltzaileek <b>bermaturik</b> izan behar dute bi hizkuntza ofizialetan nabigatzeko eta edukia orokorretara sartzeko eskubidea    | Web orri edo blog propioa duten GUOren zerbitzu/unitateak zerrendatu: Nefrocruces...                                                                                                                                                                                                                  | 2015-2016 | Gerentzia<br>Komunikazio Batzordea<br>Komunikazio Bulegoa<br>Euskara arduraduna |
|                                           | Kudeatzaileek behar besteko gaitasunik ez badute, Euskara Zerbitzuak neurriko prestakuntza/trebakuntza plana prestatuko die.        | Harremanetan jarri kudeatzaileekin, eta laguntza eskaini euskaraz ere nabigagarriak izan daitezen<br><br>Sarean edukiak argitaratzen dituzten pertsonen zerrenda osatu                                                                                                                                |           |                                                                                 |
| 1.5. Aldizkariak, buletinak               | Euskararen presentziak bat etorri behar du gutxienez GUOren jardun-eremu geografikoan bizi diren herritar elebidunen ehunekoarekin. | Argitalpen berriak irizpide horri lotuko zaizkio, eta, gutxienez, <b>edukien 1/4 euskaraz</b> argitaratuko da (erdaraz errepikatu gabe).<br><br>Erdarazko zenbait albisteren euskarazko laburpena eman daiteke<br><br>Portzentaje horri ere eutsiko zaio argitalpenaren azalean edo hasierako orrian. | 2014      | Gerentzia<br>Komunikazio Batzordea<br>Komunikazio Bulegoa                       |
| 1.7. Ekitaldi publikoak, jardunaldiak     | Ekitaldi publikoetan euskararen presentzia bermatzeko neurriak ezarri                                                               |                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | 2014      | Gerentzia<br>Komunikazio Batzordea                                              |

|                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |                                                                                                                                                                     |           |                                                              |
|---------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|--------------------------------------------------------------|
|                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |                                                                                                                                                                     |           |                                                              |
|                                                                                 | <p>Euskararen presentzia bermatu ekitaldi publikoetako deialdi, egitarau eta hasierako zein amaierako agurretan.</p> <p>Euskararen erabilera bultzatu ikus-entzunezko aurkezpenetan eta ekitaldi horien dokumentuetan.</p>                                                                             | <p><b>Ereduak</b> sortuko dira egoera horietako <b>ohiko esapideekin</b>.</p> <p>Ekitaldi publikoetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko argibideak emango dira</p> | 2014-2015 | Zuzendaritza guztiak<br>Euskara arduraduna                   |
|                                                                                 | Lanbide-talde guztietako <b>profesional elebidunen zerrendak</b> osatzea                                                                                                                                                                                                                               | Irrati edo telebistako programetan parte hartzeko, zentroaren bideoei ahotsa jartzeko, e.a.                                                                         | 2014      |                                                              |
| 1.8. Agurrak eta lehenengo esaldiak paziente eta erabiltzaileei harrera egitean | Harreretan, Informazio Unitatean eta Paziente eta Erabiltzaileen Arreta Zerbitzuan, ahal dela, lehenengo hitza euskaraz izango da.                                                                                                                                                                     | <p>Horretarako irizpideak emango zaizkie unitateko buruei.</p> <p>Kontuan hartuko da salbuetsitako langile elebazarren egoera</p>                                   | 2014      | Gerentzia<br>Pertsonaleko Zuzendaritza                       |
| 1.9. Megafonia eta erantzungailuak                                              | <p>Zenbat zerbitzutan dagoen erantzungailu automatikoa aztertuko da eta mezuak bi hizkuntza ofizialetan erregistratuko dira, hizkuntza irizpideak betez.</p> <p>Bestalde, bat-batean eman behar direnetarako, aukeren zerrenda prestatu eta banatuko zaie unitate arduradunei langileei banatzeko.</p> | Bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira beti, euskara eta gaztelania, <b>hurrenkera horretan</b> .                                                                    | 2014-2015 | Gerentzia<br>Ingeniaritza Elektronikoa<br>Euskara arduraduna |

## 2. KAPITULUA: KANPO HARREMANAK

| ATALA                                          |                                                                             | NEURRIA                                                                                                      | AZALPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | DATA      | ARDURADUNA                                                                                                                    |
|------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 2.1. Paziente eta erabiltzaile ekiko harremana | 2.1.1. Ahozko harremanetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak    | Ahozko komunikaziorako irizpide aplikatu korporatiboak                                                       | <b>Hizkuntza ofizialetan artatzeko protokoloa jasotzen dituen diptikoa + kartela</b> prestatuko du Euskara Zerbitzuak eta <i>Harreran euskaraz</i> gidaliburuarekin batera unitateetako arduradunei banatu (aurretiaz bilerak egin azalpenak emateko), azken horiek langileei emateko.<br><br>Hizkuntza irizpideak unitateko gainerako zereginetan txertatu eta, hala, dagokienean jarraipena eta ebaluazioa egingo zaie. | 2015      | Harrera unitateburua<br>Informazio unitateburua<br>Telefonoguneko unitateburua<br>PEAZeko zerbitzuburua<br>Euskara arduraduna |
|                                                |                                                                             | <b>Euskaraz bai sano!</b> Proiektua bultzatzen, zabaltzen eta egonkortzen jarraitzea                         | Langile berriei programa honetan parte hartzeko eskaintza luzatzea<br><br>Programaren berri ematea Langile berrientzako Harrera Eskuliburuan<br><br>Egoiliarrei proiektuaren berri ematea                                                                                                                                                                                                                                 | 2014-2019 | Zuzendaritza Asistentzialak<br>Pertsonaleko Zuzendaritza                                                                      |
|                                                | 2.1.2. Idatzizko harremanetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak | Idatzizko komunikaziorako irizpide aplikatu, korporatiboak komunikazio-bide tradizional zein telematikoetan. | Paziente eta erabiltzaileei zuzendutako dokumentuak ele bitan argitaratuko dira, erabiltzaileak hizkuntza bakar batean jasotzeko haren nahia adierazten duenean izan ezik.<br><br>Paziente zein erabiltzaileen eskaera, kexa edo galderei erantzungo zaie beraien erabilitako hizkuntza berean.                                                                                                                           | 2014      | Zuzendaritza guztiak                                                                                                          |

|                                                                                             |                                                                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                           |           |                                                                                     |
|---------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|-------------------------------------------------------------------------------------|
| 2.1.4.Bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideen berri ematea, aplikazioa eta jarraipena | Bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak jakinaraztea profesional guztiei                                                  | Zuzeneko komunikazioak, posta elektronikoa, kartelak unitateetan, diptikoak, <i>Harrera euskaraz</i> gida korporatiboak                                                                                                                                   | 2014-2015 | Unitate arduradunak Euskara arduraduna                                              |
|                                                                                             | Unitateetan erabilera-irizpideak agerian dituzten kartelak jarri                                                                | Harrera, Informazio, PEAZ eta ospitalizazioko solairuak                                                                                                                                                                                                   | 2015      | Unitate arduradunak Euskara arduraduna                                              |
|                                                                                             | Euskararen erabilera-irizpideen jarraipena eta ebaluazioa                                                                       | Jarraipena Unitate arduradun eta dagokion zuzendaritzarekin sei hilean behin                                                                                                                                                                              | 2014-2019 | Unitate arduradunak Zuzendaritzak Euskara arduraduna                                |
| 2.2.Zerbitzu elebidunen eskaintza                                                           | Paziente eta erabiltzaileei jakinaraztea unitate asistentzialetan ere euskara erabil dezaketela.                                | Web, harrerako informazioan, <i>Euskaraz bai sano!</i> identifikagarrien bidez...                                                                                                                                                                         | 2015      | Gerentzia, Zuzendaritza Medikoa, Erizaintzako Zuzendaritza, Zuzendaritza Ekonomikoa |
| 2.3. Pazientearen lehentasunezko hizkuntza ahozko harremanetan                              | Asistentzia mediko espezializatua euskaraz jasotzeko protokoloa abiarazi                                                        | Osakidetzarekiko harremanetan euskara hizkuntza lehenetsi gisa erregistratu duten pazienteak                                                                                                                                                              | 2014-2019 | Gerentzia, Zuzendaritza Medikoa, Erizaintzako Zuzendaritza                          |
| 2.4. Enpresa hornitzaile, finantza-erakunde, administrazio, elkargoekiko... harremanak      | Lehenengo harremana euskaraz bideratzea                                                                                         | Paziente eta erabiltzaileen arretarako erabiltzen diren irizpideak arlo honetara ere hedatzen hasi                                                                                                                                                        | 2014-2019 | Zuzendaritza guztiak Euskara arduraduna                                             |
|                                                                                             | Idatzizko komunikazio elebidunak bultzatzea                                                                                     | Paziente eta erabiltzaileen arretarako erabiltzen diren irizpideak arlo honetara ere hedatzen hasi                                                                                                                                                        | 2014-2019 | Zuzendaritza Ekonomikoa Euskara arduraduna                                          |
| 2.5. Kontrataturako zerbitzu eta erositako produktuei buruzko hizkuntza-irizpideak          | Herritarrei begira egiten diren zerbitzuen kontratua egikaritzeko pleguetan hizkuntza-baldintzak jaso behar dira eta betearazi. | Erabiltzailearentzako testua duten hornigaiak: kafe edo elikagai-makina, ostalaritza, garbiketa osasun-asistentziako ekipamenduak, inprimagailuak, fotokopiagailuak...<br>(Zentralak kontratazioetarako neurriak 2014ko 1. seihilekoan zehaztuko bide du) | 2014-2019 | Gerentzia Zuzendaritza Ekonomikoa                                                   |

### 3. KAPITULUA: BARNE HARREMANAK

| ATALA                                |  | NEURRIA                                                                                                                                                   | AZALPENA                                                                                                                                                                                                                                                                               | DATA      | ARDURADUNA                                                                   |
|--------------------------------------|--|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|------------------------------------------------------------------------------|
| 3.1. Lan-esparruko hizkuntza-paisaia |  | Lan esparruko errotulu, etiketa, artxibo... identifikatu (sendaketa gelak, biltegiak,...) eta zerrendatu.                                                 | Errebisio orokorra Ospitalean eta Lehenetsuen arabera, aldaketa-proposamena osatu.                                                                                                                                                                                                     | 2014      | Zuzendaritza guztiak<br>Euskara arduraduna                                   |
|                                      |  | Segurtasun, Lan Osasun eta Ingurumen-esparruko errotuluak ele bitan jarri                                                                                 | Emergentziako irteerak, ebakuazio-planak, su-itxalgailuak...                                                                                                                                                                                                                           | 2014      | Zuzendaritza Ekonomikoa, Pertsonaleko Zuzendaritza<br>Euskara arduraduna     |
| 3.2.1. Langileekiko harremanak       |  | Jarraibideak eman langileekiko ahozko harremanetan (aurrez aurrekoa zein telefono bidez) hizkuntza ofizialen erabilera-irizpideak arian-arian aplikatzeko | <b>Hizkuntza ofizialetan artatzeko protokoloa jasotzen dituen diptikoa + kartela</b> prestatuko du Euskara Zerbitzuak eta <i>Harreran euskaraz</i> gidaliburuarekin batera unitateetako arduradunei banatu (aurretiaz bilerak egin azalpenak emateko), azken horiek langileei emateko. | 2014      | Gerentzia<br>Pertsonaleko Zuzendaritza                                       |
|                                      |  | Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak langileekin idatzizko komunikazio guztietan aplikatu                                                           | Iragarkiak, zirkularrak, eskutitzak, posta elektroniko masiboak, deialdiak, prestakuntza, lan-osasuna, pertsonalaren administrazio-arlokoak (eskabideak, lan-kontratuak, izendapenak, ebazpenak...).                                                                                   | 2014-2015 | Gerentzia<br>Komunikazio Bulegoa<br>Pertsonaleko Zuzendaritza<br>Informatika |
|                                      |  | Langile berrientzako Harrera Eskuliburuak ele bitan                                                                                                       | Harrera Eskuliburuak erabilera-irizpideak, itzulpen-irizpideak, eta Euskaraz baino sano! Kanpaina jasoko ditu                                                                                                                                                                          | 2014-2019 | Pertsonaleko Zuzendaritza                                                    |
|                                      |  | Langile berrientzako harrera beraien aukerako hizkuntza egin                                                                                              | Langile berriei harrera egiteko ardura Pertsonal Saileko langile elebidun bati esleitu                                                                                                                                                                                                 | 2014      | Pertsonaleko Zuzendaritza                                                    |



|                   |                                             |                                                                                                                                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |           |                                                                                 |
|-------------------|---------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|---------------------------------------------------------------------------------|
|                   |                                             | Proposamen bat egin sindikatuei ospitaleko langileekiko idatzizko komunikazioetan gutxieneko konpromiso batzuk hartzeko                              | Zabalkunde handiko testuak, informazio-oharrak, posta elektroniko masiboak elebitan argitaratu                                                                                                                                                                                                             | 2014-2015 | Pertsonaleko Zuzendaritza Sindikatuak                                           |
| 3.3.Presta kuntza | 3.3.1. Etengabeko Prestakuntza Korporatiboa | Etengabeko Prestakuntzako euskarazko ikastaroen berri eman langile elebidunei eta parte hartzea erraztu                                              | Euskarazko prestakuntzaren xede izan daitezkeen langileekiko komunikazioa hobetzea: Banaketa posta-zerrendak, erreferenteen sistema...                                                                                                                                                                     | 2014      | Zuzendaritza guztiak<br>Etengabeko Prestakuntzako Unitatea<br>Euskara Zerbitzua |
|                   | 3.3.2.GUOren Etengabeko Prestakuntza        | Etengabeko Prestakuntzako ikastaroak euskaraz eskaintzen hasi                                                                                        | Ospitaleren esku dagoen neurrian eta langileen erantzunaren arabera                                                                                                                                                                                                                                        | 2014      | Etengabeko Prestakuntzako Unitatea                                              |
|                   |                                             | Saio Klinikoak euskaraz                                                                                                                              | Hori bultzatzeko lan-taldea eratu                                                                                                                                                                                                                                                                          |           | Zuzendaritza Medikoa                                                            |
|                   |                                             | Etengabeko Prestakuntzako ikastaroak zein hizkuntzatan emango den jakinarazi eta horien gaineko informazio orokorra bi hizkuntza ofizialetan zabaldu | Etengabeko Prestakuntzako ikastaroen materiala ikastaroaren hizkuntza berean banatuko da.                                                                                                                                                                                                                  | 2014      | Etengabeko Prestakuntzako Unitatea<br>Euskara arduraduna                        |
|                   | 3.3.3. Euskara ikastaroak                   | <b>Prestakuntza Plana osatu, lehentasuneko unitateen beharrianetara egokituz.</b>                                                                    | <b>Ikastaro-deialdiei aurre hartu,</b> eta Euskara Planak ezarritako lehentasunei benetan erantzuteko bitarteko eraginkor bilakatu<br><br><b>Prestakuntza Plan Indibidualizatua</b> liberatutako langileentzat eta/edo lehentasuneko unitateetan derrigortasun-datadun lanpostua bat betetzen dutenentzat. | 2015-2016 | Pertsonaleko Zuzendaritza<br>Zuzendaritza Asistentzialak<br>Euskara arduraduna  |
|                   | 3.3.4. Prestakuntza                         | Prestakuntza erdi mailako                                                                                                                            | Informazio-saio laburrak                                                                                                                                                                                                                                                                                   | 2014-2015 | Pertsonaleko Zuzendaritza                                                       |

|                                          |                                                                |                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |           |                                                 |
|------------------------------------------|----------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|-------------------------------------------------|
|                                          | osagarria                                                      | arduradunei elebitasunari, hizkuntza-normalkuntzari eta hizkuntza ofizialen erabilerari buruz.                                     | hizkuntza-politikaren gainerako funtsak ezagutarazteko                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |           | Euskara arduraduna                              |
|                                          |                                                                | Bestelako prestakuntza-ekintzak antolatu eta lan-tresnak erraztu langileen euskara-gaitasuna birziklatu, eguneratu eta sendotzeko. | Bereziki, dagokien hizkuntza eskakizuna dagoeneko egiaztatu duten langileei zuzendua                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | 2014-2016 | Pertsonaleko Zuzendaritza<br>Euskara arduraduna |
| 3.4. Euskaraz lan egiteko<br>Trebakuntza | <b>Bi urtetarako trebakuntza-plana</b><br>osatzea              |                                                                                                                                    | Euskalduntze-prozesuan dauden langileek bidaide izan gaitzatela: prestakuntza + trebakuntza orokorra + trebakuntza espezifikoa edo indibidualizatua<br><br>Trebakuntza espezifikoa langileen eguneroko lan-eginkizunei lotuta garatuko da.<br><br>Beharrian espezifikoak aztertu eta ikastaro berriak proposatu<br><br>Trebakuntza "talde naturalekin"<br><br>Trebakuntza txertatu Prestakuntza Plan Indibidualizatuan | 2014      | Pertsonaleko Zuzendaritza<br>Euskara arduraduna |
|                                          | Bi urtetarako trebakuntza-plana aplikatu eta ebaluatzea        |                                                                                                                                    | Ospitalearen baliabideak optimizatu<br>On line trebatze-ikastaro espezifiko eta zehatzak: bilera-deiak euskaraz, jakinarazpenak euskaraz, ziurtagiriak euskaraz...                                                                                                                                                                                                                                                     | 2014-2016 | Pertsonaleko Zuzendaritza<br>Euskara arduraduna |
| 3.5. Informatika-baliabideak             | Eskuragarri dauden aplikazio informatiko elebidunen berri eman |                                                                                                                                    | Korporatiboak eta ofimatikako orokorrak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | 2014      | Informatika<br>Euskara arduraduna               |
|                                          | Langile elebidunen esku                                        |                                                                                                                                    | Zuzentzaile orokorrak, hiztegi                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         | 2014      | Informatika                                     |

|                                            |                                                |                                                                                                                                 |                                                                                         |      |                                                                                             |
|--------------------------------------------|------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------|------|---------------------------------------------------------------------------------------------|
|                                            |                                                | <b>tresna informatiko lagungarriak</b> jarri beren lana euskara garatu ahal izateko                                             | elektronikoak, on line gramatika, doako ikastaroak, itzultzaile automatikoak...         |      | Euskara arduraduna                                                                          |
| 3.6. Komunikazio horizontala eta bertikala | 3.6.1. Laneko hizkuntza                        | Zerbitzu edo unitate bakoitzeko euskararen erabilera-programa prestatu (2 eredu: helburua zerbitzu-hizkuntza edo lan-hizkuntza) |                                                                                         | 2014 | Zuzendaritza Ekonomikoa Euskara arduraduna                                                  |
|                                            |                                                | Euskararen presentzia handiagotu kalitate eta ekonomia-kudeaketarekin lotutako dokumentuetan.                                   |                                                                                         | 2014 | Zuzendaritza Ekonomikoa Kalitate arduraduna Euskara arduraduna                              |
|                                            |                                                | Plan Estrategikoa, Urteko Memoria eta Kudeaketa Planak bi hizkuntza ofizialetan argitaratu                                      |                                                                                         | 2014 | Gerentzia Euskara arduraduna                                                                |
|                                            | 3.6.2. Hizkuntza ofizialen erabilera bileretan | Euskararen ahozko zein idatzizko erabilera bultzatu ospitaleko lan-bilera, ekipo, hobekuntza-talde eta batzordeetan             | Deialdi, Akta eta Jakinarazpen elektronikoen eredu bakarra eta estandarizatu ospitalean | 2014 | Gerentzia, Zuzendaritzak, erdi mailako arduradunak, kalitate arduraduna, Euskara arduraduna |
|                                            |                                                | Saio orokorretan (aurkezpenak, omenaldiak...) euskararen erabilera sustatzeko neurriak ezarri                                   | <i>Ikusi 1.7. puntua</i>                                                                | 2014 | Gerentzia Euskara arduraduna                                                                |

#### 4. KAPITULUA: HIZKUNTZA KUDEAKETA

| ATALA                  |                                                 | NEURRIA                                                                                                                                 | AZALPENA                                                                                                                                                        | DATA | ARDURADUNA                                          |
